

2025 AUDIOGILE BERRIAK PROIEKTUA DEIALDIAREN EBAZPENA

2024ko azaroaren 24an, 2025 AUDIOGILE BERRIAK soinu fikzio proiektuen laguntzen deialdia argitaratu zen Tabakaleraren webgunean, Tabakalerako Zine eta Ikus-entzunezko laborategiaren bidez.

Batzordeak garaiz eta behar bezala aurkeztutako proiektuen balorazioa egin du, proiektuak hautatzeko oinarrietan ezarritako irizpideekin bat etorritz, eta CICC/Tabakalerako zuzendari nagusiak, batzordeak proposatuta, honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- I. eranskineko taulan zerrendatutako pertsonak 2025 AUDIOGILE BERRIAK deialdian parte hartzeko aurkeztutako proiektuak hautatzea, deialdiaren oinarrietan jasotako baldintzetan.

Bigarrena.- AUDIOGILE BERRIAK programa fase hauetan garatuko da:

1. FASEA: Proiektuen garapena

- Idazle eta gidoilarien aholkularitza eta laguntza, banakako tutoretzen bidez gidoia garatzeko.
- Tabakalerako ikus-entzunezko laborategian hiru hilabetez lanerako lekua izatea, sortzaileak nahiko balu.
- 2.000 €-ko dirulaguntza proiektuak garatzeko, TABAKALERAren kontura.
- Prestakuntzako eta gidoia garatzeko bi topaketa. Derrigorrezko parte-hartzea.

2. FASEA: Gidoi irabazlean oinarritutako soinu-lan baten ekoizpena.

Bigarren fasean, EITBek ezarritako epaimahaiak, hala badagokio, irabazle gisa hautatutako proiektu/gidoi BAT deklaratu du. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta 2025ko maiatzaren 26ko astean argitaratuko da.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, S.A.ren webgunean argitaratzea eta aukeratuei jakinaraztea.

Donostian, 2025eko martxoaren 10ean.

Edurne Ormazabal Azpiroz
Zuzendari nagusia, TABAKALERA

Maite Goñi Eizmendi
Irrati eta Audio Zuzendaria, EITB

I. Eranskina

Kurruka Enea - Gaizka Sarasua eta Iraia Irazusta

Zure ilunetan - Xabin Fernandez Zubeldia

Zure eskaera, prest! - Jon .K. Sánchez